



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko ekainaren 8a

64. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Jagoletza Partekatuari buruzkoa. Ana Figueras Castellano andreak aurkeztu du (2. or.).
- Foru Lege proposamena, Defizit Publikoa Murrizteko Presako Tributu-neurriei buruzkoa. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (8. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da testu-liburuak finantzatzeari buruzko errege-lamendua alda dezan. Hezkuntza Batzordeak onetsia (12. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ezgaitasun anizkoitzeko ikasleen hezkuntza-premia bereziak artatzeko zentro bat sortzeko aukera azter dezan. Hezkuntza Batzordeak onetsia (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskolako materiala erosteko beken sistema bat ezar dezan. Hezkuntza Batzordeak bazter utzia (13. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, jakiteko zer asmo duen kontseilari jaunak Zizur Nagusiko tailerrean dagoen Donapea LHiko “Ibilgailuak konpontzeko laguntzailea” izeneko hastapeneko lanbide kualifikazioko programa ziurtatzeko, María Luisa Mangado Cortes andreak egina (14. or.).
- Galdera, ikastetxe publikoen eta Hezkuntza Departamentuarekin itundutako ikastetxe pribatuen artean ikasle etorkinen banaketari buruzkoa, Samuel Caro Sádaba jaunak egina (14. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen epe laburrean aldaketarik egiteko tributuetan, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (15. or.).
- Galdera, Ehizari buruzko Legea aldatzeko asmoari buruzkoa. Bertan behera utzitako galdera (16. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Jagoletza Partekatuari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 31n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artiku-lak aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Ana Figueras Castellano andreak Jagoletza Parte-katuari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Jagoletza Partekatuari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artiku-luan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Jagoletza Partekatuari buruzko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 48. artikulua araber, Nafarroak eskumen osoa du foru zuzenbide zibilaren arloan, eta Foru Zuzenbide Zibilar buruzko Konpilazioaren edo Foru Berriaren zainketa, aldaketa eta garape-na foru lege bidez eginen da behar izanez gero.

Nafarroako zuzenbide substantiboaren berezi-tasunetatik heldu den Foru Zuzenbide Zibila eta Zuzenbide Prozesala eguneratzeko zereginaren barruan ematen da (Konstituzioko 149.1.6 artiku-lua) foru lege hau, xede duena familia-harremanak arautzea eta jagoletza partekatua sustatzea gura-soen bizikidetasuna hausten den kasuetan.

Adingabearen eta familiaren babesari buruzko kezka izan dute beti demokrazia garatuenean. Prin-tzipio hori Konstituzioko 39. artikuluan dago jaso-ta. Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioak ere –Nazio Batuen 1989ko azaroaren 20ko Biltzar Nagusiak aldarrikatu zuen, eta Espainiak 1990eko azaroaren 30ean berretsi– estatuak behartzen ditu errespetatu dezaten haurrek bi gurasoekin modu erregularrean harreman pertsonala eta kon-taktu zuzena izateko duten eskubidea.

Familia-bizikidetasuna hausten den kasuen kopurua nabarmen igo da azken hamarkadan; halakoetan, konpontzen korapilatsuenetarikoa izaten da seme-alaba komun zaintzaren eta jago-letzaren auzia. Auzi hori, gaur egun, Kode Zibileko 92. artikulua arautzen du –Kode Zibila uztailaren 8ko 15/2005 Legeak aldatu zuen–; horren arabe-ra, gurasoak ados jarri ezean, salbuespena izanen da zaintza eta jagoletza partekatua, eta beha-rrezkoa izanen da Fiskaltzak aldeko txostena ematea. Manu horren aplikazioak ekarri du, erreali-tatean, jagoletza banakakoa ematea orokorrean emakumeari. Halere, gizartearen bilakaerak eska-tzen du zaintzari eta jagoletzari buruzko araudia eguneratzea, seme-alabek kontaktu jarraitua izate aldera gurasoekin, aita-amen arteko berdintasuna xede.

Foru lege honek, gizartearen eskari handiari erantzunez, ohiko eskema aldatzea dakar; izan ere, jagoletza partekatua taxutzen du banakakoaren aldean, lehentasuna izan dezan gurasoen arteko bizikidetasuna hausten baldin bada eta familia-harremanei buruzko hitzarmenik ez badago. Aldaketa hau seme-alaben hobe beharrez eta aita-amen arteko berdintasuna sustatzeko egiten da.

Jagoletza partekatua oinarritzeko bi eskubide batzean oinarritzen da. Alde batetik, seme-alabek bi gurasoekin harreman orekatua eta jarraitua izateko duten eskubidea, eta, beste alde batetik, gurasoek, familia-erantzukizuna baliatzean, seme-alabak hazteko eta hezteko duten eskubidea eta betebeharra.

Foru lege honek adingabeen interes gorenaren printzipioa jasotzen eta sendotzen du, haien aita-amen bizikidetasuna hautsi izanaren ondorioei dagokienez. Haien onuraren eta interesaren hobe beharrak exijitzen du bi gurasoek sentitzea bere erantzukizunak lehengoan dirauela nahiz eta banandu edo dibortziatu, eta egoera berriak ardu-ara are handiagoa exijitzen diela seme-alabekiko betebeharrak betetzerakoan.

Argi dago zein diren jagoletza partekatua abantailak. Seme-alabek afektibitate-loturak eta harreman jarraitua izaten jarraitzen dute bi gurasoekin, seme-alabei familia-egoera berria hobeki onartzen laguntzen die, bi gurasoak egiaz inplikatzen dira seme-alaben hezkuntzaren eta garapeneraren arlo guztietan eta gurasoen arteko auzi-kopurua murrizten da; izan ere, jagoletza guraso bakar bati emateak areagotu egiten ditu sarritan gatazkak, seme-alabekiko harremanen esparruan sortzen den desberdintasunaren kariatara.

Gehiengoak sistema progresistatza jotzen du jagoletza partekatua, gurasoen erantzukidetasuna sustatzen baitu gizarte aurreratu baten esparruan familia-erantzukizuna baliatzean, bi sexuen arteko berdintasuna sustatzen baitu sektore guztietan; izan ere, gizarte aurreratu batean, emakumearen garapen profesionalaren ondorioz eta gizonezkoek familia-esparruan areago inplikatzeko gogoaren ondorioz, aldatu egin da jagoletza emakumeari soilik ematearen aldeko betiko eskema. Jagoletza partekatua mesedegarria da gizarterolak gizonezkoen eta emakumezkoen artean berdintasunez banatzeko.

Azken finean, foru lege hau ekarri duen arrazoi nagusia da aldaketa handiak gertatu direla Nafarroako gizartean azken hamarkada hauetan, emakumea lan munduan sartu izanaren eraginez; halatan, familia-harreman berriak sortu dira, jagoletza banakakoari baino hobeki egokitzen zaizkionak jagoletza partekatuari. Egia da oraindik ere bide luzea dagoela egiteko, baina foru lege honek gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasun soziologikoan aurrerabidea egiten lagundu nahi du.

I. KAPITULUA

Arau orokorrak

1. artikulua. Xedea eta helburuak.

1. Foru lege honek xede du familia-harremanak arautzea seme-alabak beren kargura dituzten gurasoen bizikidetasuna hausten den kasuetan, banantze, deuseztatze eta dibortzio kasuak barne, bai eta seme-alaba adingabeen zaintzari eta jagoletzari buruzko prozesuak ere.

2. Foru lege honen helburua da gurasoen eta seme-alaben arteko harreman jarraituak sustatzea gurasoen bizikidetasuna hausten den kasuetan, bi gurasoek modu arduratsuan, partekatuan eta berdintasunez parte har dezaten, familia-erantzukizuna baliatzean, haiek heztean eta haztean. Orobat bilatzen du seme-alabek neba-arrebekin, aitona-amonekin nahiz gainontzeko ahaideekin eta hurkoekin harremana izaten jarrai dezaten.

3. Aurreko idatz-zatian ezarritakoaren ondorio-etarako, erraztu egingen da gurasoak ados jartzea foru lege honetan jasotzen den familia-bitartekotzaren bidez.

2. artikulua. Eskubideak eta printzipioak.

1. Aita-amen bizikidetasuna haustek ez die eraginen familia-erantzukizunak berezko dituen eskubideei eta betebeharrei.

2. Seme-alaba adingabeei eragiten dien erabaki, ebazpen eta neurri oro haien onurari eta interesei begira hartuko da.

3. Gurasoen bizikidetasuna haustetik heldu diren familia-harremanetan ondoko eskubideak errespetatuko dira:

a) Seme-alaba adingabeek eskubidea izanen dute gurasoekin erregulartasunez kontaktu zuzena izateko eta familia-erantzukizuna baliatzearen ondorioz haien interesei eragiten dieten erabakiak hartzean biek parte hartzeko.

b) Gurasoek familia-harremanetan berdintasunerako eskubidea dute, seme-alaba adingabeei dagokienez.

4. Eragiten dion edozein erabaki, ebazpen eta neurri hartu aurretik, entzun egin beharko zaio seme-alaba adingabeari, baldin eta behar besteko zentzutasuna badu, eta, betiere, hamabi urte baino gehiago baditu.

5. Eskubide horiek itunak egiteko askatasunaren, elkarri informazioa ematearen eta leialtasunaren printzipioekin bat harmonizatuko dira, adingabearen hobe beharrez.

II. KAPITULUA

Familia-harremanei buruzko hitzarmena

3. artikulua. Familia-harremanei buruzko hitzarmena.

1. Gurasoek familia-harremanei buruzko hitzarmen bat egin ahalko dute haien arteko bizikidetasunaren hausturaren ondorioz, seme-alabekiko familia-harreman berriaren baldintzak ezartzeko.

2. Familia-harremani buruzko hitzarmenak familia-bizitzari buruzko ondoko akordioak zehaztu ahalko ditu:

a) Seme-alabekiko bizikidetasunaren edo bisiten araubidea.

b) Seme-alaben neba-arrebekiko, aitona-amonekiko nahiz gainontzeko ahaideekiko eta hurkoe-kiko harremanaren araubidea.

c) Etxebizitzaren eta familia-arreoaren destinoa.

d) Gurasoetako bakoitzak izanen duen parte-hartzea seme-alaben gastu arruntak ordaintzen laguntze aldera, baliabide ekonomiko berekirik ez duten seme-alaba adindunenak edo emantzipatuenak barne, ordainketa-modua, gaurkotzeko irizpideak eta, kasua bada, ordainketa-bermeak. Orobat ezarriko da aparteko gastuen aurreikuspena eta gurasoetako bakoitzak horietarako egin beharreko ekarpena.

e) Ezkontzako araubide ekonomikoaren edo bikote egonkorraren bizikidetasuna arautzeko hitzarmenean ezarritakoaren likidazioa.

f) Kasua bada, konpentsaziozko familia-esleipena –pentsio bat izan daiteke, edo kapitala nahiz ondareak ematea– eta horren iraupena.

3. Ondoko kasuetan, familia-harremani buruzko hitzarmena aldatu edo deuseztatu ahalko da:

a) Gurasoak ados jarrita.

b) Familia-harremani buruzko hitzarmenean berean jasota ageri diren arrazoiekin bat.

c) Gurasoetako batek eskatuta, garrantzizko inguruabarrak jazo direlako.

d) Fiskaltzaren ekimenez, adingabeen eta ezgaituen eskubideak babesteko duen eginkizunarekin bat.

e) Familia-harremani buruzko hitzarmenari gaineratu zaiolako gurasoetako baten familia-erantzukizuna kentzea, etetea edo iraungitzea.

f) Hitzarmeneko betekizunak modu larrian edo behin eta berriz ez betetzea.

4. Familia-harremani buruzko hitzarmenak eta horren aldaketek eragina izanen dute epaileak, Fiskaltzari entzun ondoren, onetsitakoan, arestiko artikuluan jasotzen diren eskubideak eta printzipioak ziurtatuta.

5. Epaileak familia-harremani buruzko hitzarmena onetsiko du, salbu eta aginduzko arauen aurkakoak diren alderdiak edo seme-alaben interesa behar bezala babesten ez badu. Familia-harrema-

nei buruzko hitzarmena, osorik nahiz hein batean, onesten ez bada, gurasoei epe bat emanen zaie beste hitzarmen bat proposa dezaten, mugatua, kasua bada, epaileak onetsi ez dituen alderdietara. Hitzarmen berria aurkeztuta, edo emandako epea hitzarmenik aurkeztu gabe iragan bada, epaileak kasuan kasuko ebazpena emanen du.

6. Seme-alaben neba-arrebekiko, aitona-amonekiko nahiz gainontzeko ahaideekiko eta hurkoe-kiko harremanaren araubideak eskubideak eta betebeharrak sorrarazten badizkie horiei, epaileak entzun egin beharko die onespena eman aurretik.

III. KAPITULUA Familia-bitartekotza

4. artikulua. Familia-bitartekotza.

1. Gurasoek familia-bitartekotzaren mende jarri beharko dituzte haien arteko desadostasunak, akordio bat lortze aldera, besteak beste, jagoletzaren araubideari buruz.

2. Demanda judiziala aurkezten baldin bada, epaileak bitartekotza-konponbidea proposatu ahalko die eta familia-bitartekari bat izendatu hartara, gurasoen arteko akordioa errazte aldera. Epaileak orobat erabaki ahalko du gurasoak familia-bitartekotzari buruzko informazio-saio batera joan daitezkeen baldin eta, kasuko inguruabarrei erreparatuta, akordio batera irits daitezkeela uste badu.

3. Prozedura judiziala abiatuz gero, gurasoek noiznahi eskatu ahalko diote epaileari prozedura bertan behera utz dezan, familia-bitartekotzaren mende jartzeko, eta bertan behera uzte hori bitartekotza izapidetzeko behar den denborarako erabakiko da. Prozedura judiziala berriz abiatuko da baldin eta aldeetako batek eskatzen badu edo bitartekotzan akordio bat lortzen bada.

4. Gurasoek bitartekotzaren bidez lortzen dituzten akordioak epaileak onetsi beharko ditu, familia-harremani buruzko hitzarmenari begira aurreko artikuluan ezarritako moduan.

5. Familia-bitartekotza ezin izanen da inolaz era baliatu foru lege honetako 6.6 artikuluan ezarritako kasuetan.

IV. KAPITULUA Familia-harremani buruzko hitzarmenik ezean aplikatu beharreko neurriak

5. artikulua. Seme-alaben zaintza eta jagoletza.

1. Gurasoetako bakoitzak, bere aldetik nahiz biak batera ados jarrita, epaileari eskatu ahalko diote seme-alaba adingabeen edo ezgaituen zain-

tza eta jagoletza bien artean partekatzea edo hai-etako batek bakarrik hartzea bere gain.

Jagoletza partekatuko kasuetan, gurasoetako bakoitzaren eta seme-alaben arteko bizikidetasunari buruzko araubide bat ezarriko da, familiaren egoerari egokitua, bi gurasoei ziurtatze aldera berdintasunez baliatu ahal izatea haien eskubideak eta betebeharrak.

Jagoletza banakakoaren kasuetan, beste gurasoarekin komunikatzeko, egoteko edo bisitak egiteko araubide bat ezarriko da, familia-erantzukizunaren berezko eginkizunak baliatzea ziurtatze aldera hari.

2. Epailleak lehentasuna emanen dio jagoletza partekatua ezartzeari, seme-alaba adingabeen hobe beharrez, non eta ez den komenigarriagoa jagoletza banakakoa ezartzea, kontuan hartuta gurasoetako bakoitzak aurkeztu beharreko familia-harremanei buruzko plana eta, orobat, ondokoak:

a) Seme-alaben adina.

b) Seme-alaben gizarte- eta familia-loturak.

c) Seme-alaben iritzia, baldin eta behar beste-ko zentzutasuna badute, eta, betiere, hamabi urte baino gehiago badituzte, bereziki aintzat hartuta hamalau urtetik gorakoena.

d) Gurasoen gaitasuna eta borondatea seme-alaben egonkortasuna ziurtatzeko.

e) Gurasoen familia-bizitza eta lana bateragarri egiteko aukera.

f) Bizikidetasunari buruzko araubideari begira garrantzi berezia duen beste edozein inguruabar.

3. Epailleak, erabaki bat hartu aurretik, espezialista behar bezala kualifikatu eta independenteen txosten medikoak, sozialak edo psikologikoak eskatu ahalko ditu, ofizioz nahiz alderdi batek eskatuta, familia-erantzukizuna baliatzeko modua- ren eta adingabeen jagoletzari buruzko araubidearen egokitasunari buruz.

4. Non eta berariaz justifikatutako inguruabarrak gertatzen ez diren, ez da neba-arrebak banatzea dakarren konponbiderik hartuko.

5. Jagoletza banakakoa lortu nahi duen gurasoak jagoletza partekatua aurkako objektioak jartzea ez da aski izanen erabaki ahal izateko jagoletza partekatua ez datorrela adingabearen interes onenarekin bat.

6. Ez zaio gurasoetako bati zaintza eta jagoletza ez banakakoa ez partekatua ere emanen, baldin eta beste gurasoaren edo seme-alaben bizitzaren, osotasun fisikoaren, askatasunaren,

osotasun moralaren edo sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurka atentatzeagatik abiatutako prozesu penal batean sartuta badago eta kriminalitate-zantzu arrazoizkoak jasota dauden ebazpen judizial arrazoitua eman bada. Ez zaio emanen, ezta ere, baldin eta epailleak ikusten badu, alderdien alegazioei eta egindako frogei erreparatuta, etxeko edo genero indarkeriaren zantzu arrazoizkoak daudela. Nolanahi ere, kasu horietan hartzen diren neurriak berraztertu ahalko dira zigor jurisdikzioan horri buruzko ebazpen irmoa ematen denean, baldin eta ematen bada.

6. artikulua. Neurri judizialak.

1. Salbuespenez, gurasoen arteko hitzarmenik ezean, epailleak ezarri ahalko ditu bizikidetasuna hautsi ondoren familia-harremaneke bete beharreko neurriak, kontuan hartuta ondorengo artikuluetan ezartzen diren irizpideak.

2. Epaillea, ofizioz nahiz seme-alaba adingabeek, edozein ahaidek edo pertsona interesdunek edo Fiskaltzak eskatuta, behar diren neurriak ezarriko ditu, ondokoak helburu:

a) Ziurtatzea seme-alaba adingabeek gurasoetako bakoitzarekiko loturak egiaz gordetzen dituela eta loturak jarraipena duela, eta beste horrenbeste neba-arrebekin, aitona-amonekin nahiz beste ahaideekin eta hurkoekin.

b) Ekiditea gurasoetako batek edo hirugarrenek seme-alaba adingabeak ostea.

c) Ekiditea seme-alabei nahasmendu kaltegarriak, zaintzaren eta jagoletzaren titulartasuna aldatzen den kasuetan.

3. Epailleak behar diren kautelazko neurriak ezarri ahalko ditu, hartutako neurriak betetzen direla ziurtatzeko.

4. Epailleak onetsitako neurriak modu larrian edo behin eta berriz ez betetzeak hitzarmena aldatzea ekarri ahalko du, edo betearazpen judizialari buruzko arauetan ezarritakoarekin bat betetzeko exijentzia.

5. Epailleak onetsitako neurriak aldatu ahalko dira garrantzizko arrazoi edo inguruabarrak gertatzen direnean. Zehazki, seme-alaba txikiaren adina gogoan jagoletza banakakoa ezarri denean, epaian bertan ezarritako epean berraztertuko da jagoletzaren araubidea, jagoletza partekatua araubidearen egokitasuna aztertze aldera.

7. artikulua. Etxebizitzaren eta familia-arreoren erabilera esleitzea.

1. Jagoletza partekatuko kasuetan, familiaren etxebizitzaren erabilera esleituko zaio arrazoi

objektiboetan oinarrituta etxebizitza bat eskuraztea zailen duen gurasoari, eta, halakorik ezean, epaileak erabakiko du etxebizitzaren destinoa, familia-harremanetarako interes onenaren arabera.

2. Gurasoetako bati seme-alaben jagoletza banakakoa baldin badagokio, familiaren etxebizitzaren erabilera esleituko zaio, non eta familia-harremanetarako interes onenari jarraikiz ez den hobe beste gurasoari esleitzea.

3. Familia-etxebizitzaren erabilera gurasoetako bati esleitzeak muga bat izan behar du denboran. Akordiorik ezean, epaileak ezarriko du muga hori, familia bakoitzaren inguruabar zehatzak kontuan hartuta.

4. Etxebizitzaren erabilera gurasoen jabetza-tituluaren arabera denean, epaileak etxebizitza saltzeko aginduko du, baldin eta familia-harremanak egokiak izate aldera saltzea beharrezkoa bada.

5. Familia-arroa familiaren etxebizitzan egon da, non eta familia-harremani buruzko planean ez den eskatzen ondasun pribatiboak erretiratzeko. Baldin eta ez bada gurasoetako inor gelditzen familia-etxebizitzan, ondasunak bien artean banatzea erabakiko da, aplikatzekoak diren harreman juridikoei jarraikiz.

8. artikulua. Seme-alabei laguntzeko gastuak.

1. Gurasoen bizikidetasuna hautsi ondoren, biek lagunduko dute, nork bere baliabide ekonomikoaren arabera, bere kargura dauden seme-alabei laguntzeko gastuak ordaintzen.

2. Epaileak seme-alaben beharrezan, baliabideen eta gurasoek dituzten baliabide ekonomikoaren arabera erabakiko du seme-alabei laguntzeko gastu arruntetan gurasoek egin beharreko ekarpena.

3. Epaileak gurasoei agindu ahalko die batera nahiz nork bere aldetik ordaindu behar izatea seme-alaben gastu arruntak, kontuan hartuta zein den jagoletzaren araubidea; eta beharrezkoa baldin bada, haien artean aldizkako ordainketa bat egin beharra ezarriko du.

4. Seme-alabek behar dituzten aparteko gastuak dauzkaten baliabide ekonomikoaren arabera ordainduko dituzte gurasoek. Beharrezkoak ez diren aparteko gastuak gurasoen arteko akordioaren arabera ordainduko dira, eta, akordiorik ezean, gastua egitea erabaki duen gurasoak ordainduko ditu.

9. artikulua. Konpentsaziozko esleipena.

1. Bizikidetasuna hausteak beste gurasoarekiko desoreka ekonomikoa eragiten baldin badio guraso bati, eta elkarrekin bizi zireneko egoeran baino okerrago gelditu baldin bada, bestearengandik konpentsaziozko esleipen bat jasotzeko eskubidea izanen du.

2. Epaileak ezarriko du esleipenaren zenbatekoa eta aldi baterako den edo mugagabea den, ondoko irizpideen bidezko ponderazioa eginez:

- a) Gurasoen baliabide ekonomikoak.
- b) Eskatzailearen adina, haren aukera ekonomikoak eta laneratzeko aukerak.
- c) Seme-alaben adina.
- d) Familia-etxebizitzaren erabileraren esleipena.
- e) Gurasoek familian betetzen dituzten eginkizunak.
- f) Bizikidetasunaren iraupena.

3. Konpentsaziozko esleipenaren ondare-dukia zeinahi izan daiteke, aldizkakoa nahiz entrega bakarrekoa, baldin eta horren helburua betetzeko aukera ematen badu.

4. Konpentsaziozko esleipena berraztertuko da baldin eta jasotzen duenaren nahiz ordaintzen duenaren egoera ekonomikoa nabarmen aldatzen bada.

5. Konpentsaziozko esleipena iraugiko da jasotzailea berriz ezkontzen bada, esleipena ezartzeko erabilitako irizpide ekonomikoak nabarmen aldatzen badira, jasotzailea hiltzen bada, iraupenaren epea bete bada edo ez baldin bada zeukan helbururako baliatzen.

V. KAPITULUA **Behin-behineko neurriak**

10. artikulua. Behin-behineko neurriak.

Seme-alabak bere kargura dituzten gurasoen bizikidetasuna hausten den kasuetan, epaileak behin-behineko neurriak ezarri ahalko ditu familia-harremani dagokienez, foru lege honetan ezarritako irizpideekin bat, baldin eta aitak, amak, euren kargura dauden 14 urtetik gorako seme-alabek edo Fiskaltzak, seme-alaba adingabeak eta ezgaituak babesteko legezko eginkizunari jarraikiz, hala eskatzen badute.

Xedapen iragankorra.

1. Foru lege honetako arauak aplikatuko dira berau indarrean sartu aurretik hartutako neurri

judizialak eta hitzarmen arautzaileak berraztertzean.

2. Gurasoetako batek jagoletza partekatua eskatzen baldin badu, aurreko legediari jarraikiz hartutako neurri judizialak eta hitzarmen arautzaileak berraztertuko dira urtebetez, foru lege honek indarra hartzen duenetik aitzina.

3. Azken xedapenetan lehenak aipatzen duen Familia-bitartekotzari buruzko Foru Legea indarrean sartu bitartean, arlo hori arautuko du Gizarte zerbitzuen arloko baimenen, arau-hausteen nahiz zehapenen araubideari buruzko maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretuko eranskineko xedapenek (foru dekretu hori Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren uztailaren 23ko 147/2007 Foru Aginduak aldatu zuen).

Lehenengo xedapen gehigarria. Zenbait pertsonari buruz ari denean foru lege honen gaztelaniazko bertsioak genero gramatikal maskulinoko izenak erabiltzen dituen kasu guztietan (“padres”, “hijos”, “abuelos” eta abar) ulertu behar da adierazpideen ekonomia hutsagatik jokatzeko delak horrela, eta horiek orokorrean hartzen dituela hizpide, haiek bai emakumezkoek bai gizonezkoek betetzen dituztela ere, erabateko berdintasun-baldintzetan, ondorio juridikoen ikuspegitik.”

Bigarren xedapen gehigarria. 1. Deuseztatze, banantze eta dibortzio kasuetan, seme-alabak bere kargura dituzten gurasoen familia-harremanei

buruzko neurri judizialak Prozedura Zibilaren Legeko prozedurari jarraikiz hartuko dira, foru lege honen espezialitateetara egokiturik.

2. Hitzarmen arautzaileari eginiko aipamenak egitean familia-harremanei buruzko itunari buruz ari da legea.

Hirugarren xedapen gehigarria. Seme-alabak bere kargura dituzten bikote egonkorren eta egitatezko bikoteen bizikidetasuna hausten den kasuetan, hausturaren osteko familia-harremanei buruzko neurri judizialak Prozedura Zibilaren Legeko prozedurari jarraikiz hartuko dira.

Xedapen indargabetzailea.

Indargabetuta gelditzen da Bikote Iraunkorren Berdintasun Juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legeko 10. artikulua.

Azken xedapenetan lehena. Foru lege hau argitaratu ondoko hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak Familia-bitartekotzari buruzko Foru Lege proiektua igorriko Nafarroako Parlamentuari; proiektuan, familia-gatazkak konpontzeko bide judizialaren ordezkotresna horren jardunbidea, eskumenak eta eskurantzak arautuko dira.

Azken xedapenetan bigarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta hiru hilabeteko epean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Defizit Publikoa Murrizteko Presako Tributu-neurriei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko maiatzaren 31n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak Defizit Publikoa Murrizteko Presako Tributu-neurriei buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Defizit Publikoa Murrizteko Presako Tributu-neurriei buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Defizit Publikoa Murrizteko Presako Tributu-neurriei buruzko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Defizit publikoa murrizteko aparteko neurriak ezartzen dituen maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Dekretuaren bidez, Espainiako Gobernuak doikuntza ekonomiko berri eta gogorra onetsi du defizit publikoaren murrizketa programatua azkartzeko. Izan ere, murrizketa hori lortzeko urte honen hasieran defizit publikoa BPGaren % 3ra murrizteko kontsolidazio fiskaleko programa bat onetsi zen, eta hartan defizita 2013rako BPGaren % 3 murriztea aurreikusi zen, lau ekitalditan zehar, 2010erako aurreikusitako BPGaren % 9,8ko defizitetik abiatuta (2009an BPGaren % 11,2 izan zen).

Espainiako Gobernuak konpromisoa hartu du defizitaren murrizketa programatua aurreratzeko, eta bere egin ditu beste murrizketa batzuk, BPGaren puntu erdia egiten dutenak 2010ean (5.000 milioi euro baino gehiago) eta beste puntu bat 2011n (10.000 milioi euro). Horrek esan nahi du

defizit publikoa BPGaren % 5,2 puntuan jaitea, 2009ko BPGaren % 11,2ko defizitetik hasita 2011ko BPGaren % 6ra. Gobernuak lehendakariak Kongresuan adierazi zuen bezala, horrek esan nahi du soilik bi urtetan lau urterako programaturako doikuntzaren bi heren betetzea.

Erabaki da sektore publikoko langileen ordain-sariak batez beste % 5 murriztea 2010eko ekainetik eta 2011n haiek izoztea, eta 2011rako pentsioen birbaloratzea etetea, kotizazio gabekoak eta gutxieneko pentsioak salbuetsita: 40/2007 Legean erretiro partzialerako aurreikusitako aldi baterako araubidea kentzea; 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera jaiotzarengatik 2.500 euroko prestazioa kentzea; farmaziako gastuak murriztea; eskatzaile berrientzat mendetasunarengatik prestazioen ordainketan, eskaeraren egunaren araberrako atzeraeragina kentzea eta aldi berean sei hileko gehieneko epe bat ezartzea, eta epe hori ez bete-tzekotan data horretara arteko atzeraeragina ezartzea; 2010 eta 2011 bitartean, garapenerako laguntza ofiziala 600 milioi euroan gutxitzea; Estatuaren inbertsio publikoa 6.045 milioi euroan gutxitzea; eta autonomia erkidegoek eta toki entitateek 1.200 milioi euroko aurrezki gehigarria lortzea.

Neurri horietako batzuek aurrekaririk gabeko doikuntza bat dakarte gizarte gaietan, eta guztiek batera ziurgabetasun handiagoa eragiten dute espero izatekoa den oneratzeko ekonomikoan. Defizit publikoaren murrizketa azeleratuak eragin negatiboa izanen du eskari agregatuan eta, horrenbestez, hazkunde ekonomikoan eta enpleguan ere bai.

Horri dagokionez, Espainiako Gobernuak neurriak, azkenean, kaltegarri gerta daitezke kontu publikoaren desoreka hobetzeko, zuzengabeak eta premiarik gabekoak izateaz gainera. Oneratzeko ekonomikorako oztupoak jartzen badira, askoz ere zailagoa izanen da zergen arloko desorekak zuzentzea, eta enplegua izanen da kalte handiena pairatuko duen arloa; izan ere, oso litekeena da langabezia-tasak, epe motzean, populazio aktiboren % 21 baina gehiago egitea.

Halaber, Nafarroan zerga-bilketan azken bi urte hauetan izan den beherakada oso nabarmena izan da, eta 2010erako Nafarroako Gobernuak iragarria du gastua are gehiago gutxitzea, hain zuzen ere 100 milioi euroan.

Egoera hori saihesteko jarduera ekonomikoa bultzatuko duten neurriak hartu behar dira, baina

aldi berean diru-sarrera publikoen arloan ere jardun beharra dago, saihesteko defizit publikoak arazo handiak ekar ditzan finantzaketaren orduan.

II

Aipatutako errege dekretu legean jasotako neurriek zuzeneko eragina izanen dutenez Nafarroako Foru Komunitatean, behar den arau-egokitzapenaren bitartez kasua bada, foru lege honek tributuen multzo bat jasotzen du, epe laburrean gure defizit publikoa gutxitzeko baliabideak lortze aldera; aldi berean, gainera, birbanaketan eragin positiboak lortzea bilatzen da, oro har gaitasun ekonomiko handiena izan eta kontsumorako joera erlatibo txikiagoa duten zergadunei eragiten baitie. Horrela, Espainiako Gobernuak programaturiko doikuntzarekin alderatuta, neurri hauek sozialki zuzenagoak dira eta balizko eragin negatibo txikiagoa izanen dute eskari agregatuan.

Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergan, eskala aldatu eta beste tarte bat sartzen da urteko 100.000 eurotik gorako likidazio-oinarrietarako tarifa orokorrean, ulertuta ordainsari handiak jasotzen dituzten zergadunek ahalegin gehigarri bat egin dezaketela gastu publikoa finantzatzeko. Bigarrenik, aurrezkiengatik zergak ordaintzerakoan, gehikortasun handiagoa lortzen da, urteko 12.000 eurotik gorako likidazio-oinarrietarako beste tarte bat jarritz. Gainera, plusbalioengatik zergak kalkulatzeko, iraupen-epareen baldintza berreskuratzen da.

Ez dirudi ez zuzena, ez orekatua denik espekulazio-eragiketen ondoriozko plusbalio izugarriak aurrezkiaren errentatzat hartzea eta errenta orokorra zergapetzen duena baino zerga-tasa onuragarriagoa izatea. Nolanahi ere, ez dirudi egokia denik oso epe motzean eginiko eragiketen etekinetarako. Plusbalio horiek ez diote balio erantsirik ekartzen ekonomiari, ez diote onurarik ekartzen ekonomia produktiboari eta kalte egiten diote erosleari, zeinak prezio garestiagoa ordaindu beharko baitu, bereziki higiezin gainera espekulaziozko eragiketen kasuan.

Hori dela eta, aurrezkiaren errentatzat hartzen dira gutxienez ere bi urteko antzinatasuna duten ondasunen edo eskubideen eskualdatzeak, eta sei urtera arte zabaltzen da higiezin eskualdaketen kasuan. Halaber, salbuespen bat ezartzen da zergadunaren ohiko etxebizitzaren eskualdaketen kasuan, baldin eta bizitokiz aldatzeko arrazoik objektibo bat baldin badago.

Foru lege honek ondarearen gaineko zerga berreskuratzen du, milioi bat euro baino gehiagoko banakako ondare garbia aitortzen duten zergadu-

nentzat; hala, 2008an zerga kendu aurretik zeuden arau, salbuespen eta tarifei eusten zaie.

Sozietateen gaineko zergari dagokionez, % 35eko tasa ezartzen da 100 milioi euroko zenbatekoa gainditzen duten zerga-oinarrietarako. Kopuru horretatik gorako etekinak lortzen dituzten enpresa handiek ahalegin gehigarri bat egin ahal dute gastu publikoa finantzatzeko. Bereziki enpresa handi horiek aukera badute % 20tik beherako batez besteko tasa efektibo batez baliatzeko, kon-tuan izanda, bestalde, % 20 hori ez dagoela kalkulaturik kontabilitate-etekinen ginetan, baizik eta aitorturiko zerga-oinarriaren gainean, eta txikiagoa dela tamaina txikiagoko enpresen batez besteko tasa baino.

Xedapen gehigarrian iruzur fiskalaren aurkako borroka areagotzeko neurriak ezartzen dira. Krisi ekonomikoaren ondorioz zergen bidezko diru-sarrerek hondoa jo dutenez, eta ezkutuko ekonomiak nabarmen egin duenez gora, funtsezko kontu bat dira neurri hauek guztiak.

1. artikulua. 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua, Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko Testu Bategina onesten duena, aldatzea.

4/2008 Legegintzako Foru Dekretua, Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko Testu Bategina onesten duena, aldatzen da, honako atal hauetan jasotzen den moduan:

1. 54. artikuluko b letra aldatu da, eta testu hau izanen du:

“b) Eskualdaketen aurreko bi urteetan esku-aldatzailearen ondarean egon diren ondarezko elementuen eskualdaketen ondorioz gertatzen diren ondare-irabaziak eta galerak, egunetik egunera kontatuak.

Higiezin edo haien gainean eratutako esku-bideen eskualdaketen kasuan, aurrezkiaren errentatzat hartuko dira gertaturiko irabaziak eta galerak, betiere higiezin horiek edo haien gaineko eskubideek eskualdaketen aurreko sei urteetan eskualdatzailearen ondarean egon baldin badira.

Ondasunak aldi jakin batez ondarean egoteari buruzko baldintza, aurreko lerrokadan adierazitakoa, ez da eskatuko eskualdatzailearen ohiko etxebizitza dena eskualdatuz gero, ez eta harekin batera eranskinak eta garaje-plazak (bi gehienez) eskualdatuz gero ere, baldin eta inguruabar objektibo bat baldin badago etxebizitzaz aldatzea exijitzen duena; esate baterako, ezkontzea, banatzea, lantokiz aldatzea, lehen enplegua lortzea, lan aldaketa edo etxebizitza aldatzea justifikatzen duten antzeko arrazoiak. Inguruabar horiek eta

haiek egiaztatzeko modua erregelamendu bidez ezarriko dira”.

2. 59. artikuluko 1. idatz-zatiak testu hau izanen du:

“1. Likidazio-oinarri orokorrari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Likidazio-oinarria, zenbateraino	Kuota osoa	Likidazio-oinarriaren	
		gainerakoa, zenbateraino	Aplikatzekoa den tasa
		3.400 €	% 14
3.400 €	476 €	4.000 €	% 22,5
7.400 €	1.376 €	8.000 €	% 25,5
15.400 €	3.416 €	12.500 €	% 28
27.900 €	6.916 €	13.000 €	% 36,5
40.900 €	11.661 €	13.000 €	% 42
53.900 €	17.121 €	46.100 €	% 44
100.000 €	34.925 €	gainerakoa	% 50

3. 60. artikulua testu hau izanen du:

“Likidazio-oinarri bereziari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Likidazio oinarria	Aplikatzekoa den tasa
6.000 euro bitarte	% 18
6.000,01 eurotik 12.000 eurora	% 21
Zerga-oinarriaren gainerakoa, 12.000,01 eurotik gora	% 24

2. artikulua. Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen aldaketa.

Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen da, ondoko ataletan jaso bezala.

1. 33. bis artikulua testu hau izanen du:

“33. bis artikulua. Kuota osoaren hobari orokorra.

Zergak ordaintzeko behar pertsonala edo erreala duten subjektu pasiboek ehuneko 100eko hobaria aplikatuko zaie zergaren kuota osoan, baldin eta zerga-oinarriak ez badu 1.000.000 euroko kopurua gainditzen”.

2. 35. artikulua testu hau izanen du:

“35 artikulua. Eskumena.

Zerga kudeatu, ikuskatu, likidatu eta dirua biltzeko eskumena Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren gain geldituko da. Eskumen horren kariatara departamentuak egindakoen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahalko da Nafarroako

Gobernuan, jakinarazpen formal egin eta hilabete epean”.

3. 36. artikulua testu hau izanen du:

“36 artikulua. Aitorpena aurkezteko betebeharra duten pertsonak:

1. Aitorpena aurkeztu beharko dute 33. bis artikuluan aurreikusitako hobari orokorra aplikatzen ez zaien subjektu pasiboek. 2. Aurreko idatz-zatian ezarritakoa gorabehera, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak edozein subjektu pasibori eskatu ahalko dio aitorpena aurkez dezan”.

4. 37. artikulua testu hau izanen du:

“37 artikulua. Autolikidazioa.

1. Aitorpena aurkezteko betebeharra duten subjektu pasiboek autolikidazioa egin beharko dute, eta, kasua bada, tributu-zorra Ekonomia eta Ogasun Departamentuak zehazten dituen tokian, moduan eta epeetan ordaindu beharko dute.

2. Tributu-zorra ordaintzeko, Ondasun Higikorraren Inbentario Orokorrean edo Interes Kulturala duten Ondasunen Erregistro Orokorrean sarturik dauden eta Espainiako Ondare Historikoa edo Foru Komunitateko Ondare Historikoa osatzen duten ondasunak ematen ahal dira, erregelamendu bidez ezarriko diren baldintzetan.

Tributu-zorra ordaintzen ahalko da, halaber, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak ondorio honetarako soilik, interes kulturalakoak deklaratu dituen beste ondasunen bidez.

5. 38. artikulua testu hau izanen du:

“38. artikulua. Aitorpenaren aurkezpena.

Aitorpena egiteko, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak ezarritako bide, epe eta inprimakiak erabiliko dira. Ekonomia eta Ogasun Departamentuak zergaren aitorpen bateratuko ereduak onetsi ahalko ditu, familia-unitatea osatzen duten subjektu pasiboek haiek erabili ahal izan ditzaten. Halaber, modua izanen du aitorpenaren modalitate erraztuak edo bereziak erabili daitezkeen onesteko.

Subjektu pasiboek aitorpenak egiten dituztenean, bertan eskatzen zaizkien datu guztiak jarri, ezartzen diren agiri eta justifikazio-orriak haiei erantsi eta izenpetu eta aurkeztu beharko dituzte, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak ezarritako lekuetan.

6. Bigarren xedapen iragankorra gehitzen da. Honako testua izanen du:

“Foru lege honetako 6. artikuluko 3. idatz-zatian aipatzen diren subjektu pasiboek bi hilabete epea izanen dute hura indarrean sartzen denetik

Nafarroako Ogasun Publikoan zerga honen ondo-riotarako haiek ordezkatu dituen pertsona izendatzeko eta jakinarazteko.”

3. artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea aldatzea.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legeko 50. artikulua aldatzen da. Hona nola geratuko den:

“50 artikulua. Karga tasa.

Zerga honen subjektu pasiboentzat, karga tasa orokorra ehuneko 30ekoa izanen da. Hala eta guztiz ere, karga tasa orokorra ehuneko 35ekoa izanen da zerga-oinarrian 100 milioi euroko kopurua gainditzen duten subjektu pasiboentzat.

Xedapen gehigarria. Iruzur fiskalaren aurkako borrokaren emaitzak hobetzeko neurriak.

1. Nafarroako Gobernuak, foru lege hau onesten denetik urtebete iragan baino lehen, azterlan bat egin beharko du Nafarroako ezkutuko ekonomia zenbatesteko. Lurraldeak, sektoreak eta zer-

gak zehaztuko ditu azterlan horretan, eta bi urtez behin azterlan hori gaurkotuko du, Europar Batzordeak metodologia dela-eta egiten dituen zehaztapenen arabera. Txosten hori Nafarroako Parlamentuari igorriko zaio, eztabaida dezan.

2. Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak sei hilez behin informazioa emanen dio Nafarroako Parlamentuari bere eginkizunak betez iruzurra kontrolatzeko eta zergadunei laguntza emateko eginiko jarduketan emaitzei buruz, eta datu objektiboak igorri beharko ditu, kudeaketa garden eta independentea bermatzeko eta Nafarroako ezkutuko ekonomiaren bilakaera tenporala jarraitu ahal izateko.

Xedapen indargabetzailea.

Indarrik gabe utzi dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo beheragoko xedapenak oro.

Azken xedapena.

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da testu-liburuak finantzatzeari buruzko erregelamendua alda dezan.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2010eko ekainaren 4an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da testu-liburuak finantzatzeari buruzko erregelamendua alda dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko ekainaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da testu-liburuak finantzatzeari buruzko erregelamendua alda dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du testu-liburuak finantzatzeari buruzko erregelamendua alda dezan, ondoko helburuekin:

- Ikastetxe bakoitzaren zuzkidura ekonomikoa matrikulazio-aurreikuspenaren arabera kalkulatzea, kontuan hartuta ikasturtean zehar ikasle kopurua handitu egiten dela.
- Zuzkidura baino % 10 gehiago esleitzea, aurreikusita testu-liburuak edo materiala hondatu edo galdu egin daitekeela.
- Uko egiteari buruzko aipamena kentzea.
- Hezkuntza Departamentuak kontrolatzea eta ikuskatzea ikastetxe bakoitzak, testu-liburuen doakotasunari buruzko programa dela-eta, egiten duen kudeaketa.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ezgaitasun anizkoitzeko ikasleen hezkuntza-premia bereziak artatzeko zentro bat sortzeko aukera azter dezan.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2010eko ekainaren 4an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ezgaitasun anizkoitzeko ikasleen hezkuntza-premia bereziak artatzeko zentro bat sortzeko aukera azter dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko ekainaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ezgaitasun anizkoitzeko ikasleen hezkuntza-premia bereziak artatzeko zentro bat sortzeko aukera azter dezan

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eragin larriko ezgaitasun anizkoitzak dituzten ikasleen hezkuntza-premia bereziak artatzeko zentro bat sortzeko aukera azter dezan. Ikastetxe horren antolamenduak, ordutegiari, egutegiari, arreta modalitateari eta profesionalen dagokienez, nahaste horiek sortzen dituzten beharrezko errealitatei erantzun beharko lieke. Halaber, ikastetxe horrek egoitza-zerbitzua izan beharko luke ikasleentzat, arreta integrala eskaintze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ikasle horiek udako hila-beteetan eta oporraldietan artatzeko programak diseinatu eta abian jar ditzan, egunero behar dituzten arreta- eta estimulazio-programekin jarraitu ahal dezaten.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskolako materiala erosteko beken sistema bat ezar dezan.

HEZKUNTZA BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Ana Figueras Castellano andreak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskolako materiala erosteko beken sistema bat ezar dezan".

Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeak, 2010eko ekainaren 2an egindako Osoko Bilkuran,

erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2010eko maiatzaren 21eko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko ekainaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko zer asmo duen kontseilari jaunak Zizur Nagusiko tailerreen dagoen Donapea LHiko “Ibilgailuak konpontzeko laguntzailea” izeneko hastapeneko lanbide kualifikazioko programa ziurtatzeko.

MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zer asmo duen kontseilari jaunak Zizur Nagusiko tailerreen dagoen Donapea LHiko “Ibilgailuak konpontzeko laguntzailea” izeneko hastapeneko lanbide kualifikazioko programa ziurtatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko ekainaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari María Luisa Mangado Cortesek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ahoz erantzuteko honako ezohiko galdera aurkeztu du, ekainaren 10erako deitutako Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilari Catalán jaunak erantzun dezan:

Zer asmo du kontseilari jaunak Zizur Nagusiko tailerreen dagoen Donapea LHiko “Ibilgailuak konpontzeko laguntzailea” izeneko hastapeneko lanbide kualifikazioko programa ziurtatzeko?

Iruñean, 2010eko ekainaren 4an

Foru parlamentaria: María Luisa Mangado Cortes

Galdera, ikastetxe publikoen eta Hezkuntza Departamentuarekin itundutako ikastetxe pribatuen artean ikasle etorkinen banaketari buruzkoa.

SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, ikastetxe publikoen eta Hezkuntza Departamentu-

arekin itundutako ikastetxe pribatuen artean ikasle etorkinen banaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko ekainaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Samuel Caro Sádaba jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilari eta Erakunde-ekiko Harremanetarako kontseilariak ekainaren 10eko Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Zioak

Nafarroako Immigrazio Bulegoak Parlamentuko kideek bertara eginiko bisitan emandako datuen arabera, Nafarroako etorkinen % 78 ikastetxe publikoetan eskolatuta daude. Hortaz, soilik % 22 dago eskolatuta ikastetxe pribatuetan. Guztira, 10.899 dira beste herrialde batzuetatik etorritako ikasleak.

Ikasle etorkinei eskolazterakoan ematen zaien tratu berezi horrek, publikoaren eta pribatuaren arteko banaketari dagokionez, eta zure gobernuak

ezarritako eredu horrek ez dute, gure ustez, inolako justifikaziorik. Ez dirudi arrazoizkoa denik hezkuntza publikoak jasotzea ikasle horien zati handiena; aldiz, egokiena izanen litzateke pisua banatzea, integrazio hobea eta kalitate handiago-ko hezkuntza lortze aldera ikasle guztientzat, ikasle- jatorriaren arabera bereizketarik egin gabe.

Hori ikusirik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko galdera aurkeztu du, Hezkuntzako kontseilariak, zeinak, halaber, immigrazioaren alorreko eskumenak ere baititu, Osoko Bilkuran erantzun dezan:

- Nafarroako Gobernuak ontzat hartzen al du eredu hori? Kasua bada, ba al du asmorik neurriak hartzeko, heldu den ikasturtean portzentaje horiek modu orekatuagoan bana daitezen ikastetxe publikoen eta zure departamentuak itunduta dauzkan ikastetxe pribatuen artean?

Iruñean, 2010eko ekainaren 7an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen epe laburrean aldaketarik egiteko tributuetan.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen epe laburrean aldaketarik egiteko tributuetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko ekainaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko eledun Ion Erro Armendárizek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasuneko ondoko ahozko galdera aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Egoera ekonomikoa kezkarria da eta administrazio publikoetan ardurak dituzten zenbait ordezkari politikok tributu-neurriak ezarriko dituzte- la iragarri dute autonomia erkidego batzuetan.

Galdera

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik epe laburrean aldaketarik egiteko tributuetan?

Iruñean, 2010eko ekainaren 7an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, Ehizari buruzko Legea aldatzeko asmoari buruzkoa.

BERTAN BEHERA UTZITAKO GALDERA

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2010eko maiatzaren 27an egindako bileran, erabaki zuen adieraztea M.^a Gracia Iribarren Ribas andreak aurkezturiko galdera, Ehizari buruzko Legea aldatzeko asmoari buruzkoa, bertan behera gelditu dela galdezailearen faltagatik.

Galdera hori 2010eko maiatzaren 7ko 51. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda